

EUSKARAREN DIDAKTIKAREN INGURUAN ZENBAIT HAUSNARKETA

Gai hau alde guztietatik inguratzeko askoz ere gehiago sakondu beharra izan arren, ongi etorriko zaigula honetaz saiotxo bat egitea uste dut.

Txiki-txikitatik ikastetxeetan euskara ikasten hasitako zenbait haurrek euskara mintzatzeko trebetasun eskasa dutela ikusirik, badagoela euskara nola irakasten den hausnartu eta aztertu beharrik uste dut; arazo horrek, jakina, ez du iturburu bakarria aipatutako hori, askotan gure esku ez dauden faktoreek ere eragin zuzena izan ohi dute eta.

Irakaskuntza munduan gabiltzanok badugu, ostera, zenbati metodologia frogatuz hobetzen joateko aukera eta gure betebeharren artean barru sartzen denez, horretan saiatu beharra ere.

Oso ongi dago barnetegi, kanpaina eta beste halako zenbait ekintza egitea; egin behar dira, baina, beste honetan ere bide berriak urratzeari ekin behar diogu, ez bait dira nahikoa, beti behintzat, euskara irakasteko orduan ditugun akatsak orekatzeko.

Gure hipotesien artean honako hau dugu: **ERABILPENERAKO TREBETASUNAK LORTZEAK EZ OTE DUEN ZERIKUSI ESTUA EUSKARA IRAKASTEAN ERABILTZEN DEN ERAREKIN.**

Metodologia estrukturalistak izan dira, egin eginean ere, KORRONTE FORMALEN ingurukoak, normalean hizkuntzen irakaskuntzan erabilienak. Korronte hauen arabera, ZER izan ohi da garrantzitsuena, zer hori gramatika edukinen zailtasunen arabera planifikatzen delarik. Hain zuzen, hizkuntza bat ikastea gizarteak eta psikologiak eta beste zenbait faktorek zerikusirik ez balute edo.

Orain dela gutxi arte ingurune bakartzat linguistikarena hartuz jokatzeko bazen ere, gaur egun psikolinguistika eta soziolinguistika kontutan harturik egin ohi da hizkuntzen irakaskuntza.

Korronte estrukturalistak baztertu eta KORRONTE FUNTZIONALETIK abiatzen ari gara poliki-poliki baldin bada ere.


(Ikusi kuadroa urrengo orrialdean)

KOADROA bi korrontean adierazgarria izanik, ongi etorriko zaigu korronte bien arteko ezberdinetan ikusteko. Bertan agertzen den bezala, kuadroaren ezker aldean, metodologia estrukturalistak erabiltzen dituen elementuak agertzen zaizkigu; ikus dezakegunez GRAMATIKA hartzen du abiaburutzat korronte honek.


Koadroaren eskuin aldean, oster, metodologia komunikatiboaren elementuak ageri dira abiaburutzat MEZUA hartzen delarik.

Funtzionaltasuna hizkuntzari edo, hobeki esanda, euskarari aplikatzen ari bagara ere, ikastetxeko esparru guztietan kontutan hartzekoa genuke.

Erreforma ere guk bultzatu nahi dugunarekin bat dator eta antzekoa proposatzen digu IRAKASKUNTZA ESANGURATSUA egin behar dugula, hotz, ikasi ez dela ikaste hutseagatik egin behar jakiteko baizik eta, irakatsi ere ez, irakaste hutseagatik dioskunean.



NOK ERABILTZEN DUGU HIZKUNTZA?



Ikaslegoak funtzionaltasunik sumatzen ez badu, ez du motibapenik izango aurrera gogor egin ahal izateko.

Irakaslegoarentzat ere ez da hori bat ere ona, hainbeste lan egin ondoren, ezer gutxi lortzen dela ikustean etsipen portaerak sor ditzakeelako.

Metodologia estrukturalistek gramatika edukinak hartzen dituzte abiaburutzat, programazioa gramatika edukinen zailtasunen arabera burutuz.

Metodologia honen erabilpenean oinarriturik lor daitezkeen emaitzak, onenean ere ez dira oso onak bilakatuko; beraz, ez du merezi honen gainean eraikitako ahaleginik egiteak; bide berriak urratu beharra dago, bada, gogoko izan edo ez.

Fonologia, morfosintaxia, gramatika eta abarren inguruan ibiltzeak ez du merezi hizkuntza barnertzeko bide bezala, behintzat; beste kontu bat da, noski, euskara maila ona lortu denean zenbait ariketa metalinguistiko proposatzea, baina, orduan ere gehiegikeriarik egin gabe.

Metodologia komunikatiboaren arabera egindako prozesuak honako ondorioak ekarri ohi ditu, metodologia honek eskatzen dituen alderdiak egokiro zaintzen direla eginez gero:

- Ikastetxe barruan zein kanpoan, komunikazio egoeretan egoki mintzatzeko trebetasuna lortzen da.
- Metodologia hau besteekin konparatuz, logikoagoa eta motibagarriagoa da.
- Arrakasta handiagoa lortzen da.
- Estralinguistikoak diren elementuak probetxatuz, modu natural batetan ikasten da.
- Mezuan oinarritzen denez, komunikatzeko balio du.

Metodologia komunikatiboaren oinarrian dauden elementuak:

Funtzioak: Zerbait komunikatzeko nahiari edo beharrari erantzuna emateko.

Nozio orokorrak: Hizkuntzari berari lotuak agertzen diren elementuen erabilpena.

Nozio espezifikoak: Arloari edo interesguneari lotuak dauden hizkuntz elementuen erabilpena.

Esakuneak edo hizkuntz formak guztia gauzatzeko bide bilakatzen dira erabilpenan.

PROZEDURAN era jokabide batzu izan behar ditugu kontutan:

- «input» aberatsa eskaintzea egoera bakoitzean, behar duten komunikazio trebetasuna lor dezaten.
- Input-aren legea ongi erabiltzea, ezagutzen dutenetik abiatuz, aurrera pausu bat emanez (+1) Vigotsky.
- Uneak ere egokiro bereiztu behar dira:
 - Hasierako unea
 - Lantze unea
 - Automatizatze unea
- Uneen arabera, komunikazio aktibitateak eta ariketak ongi planifikatu beharra dago.

Zenbaiten teoriak asko lagun diezagukete zalantzak ditugunerako: Bruner, Vigotsky, Bronckart, Hymes, j. Toug etabarrek zenbait argibide eskaintzen bait diote ohiturarik ez duenari metodologia honetatik zehar abiatzeko.

Hiru atal hauek kontutan izanik hasi gaitezke programatzen eta, teoriak barneratu eta praktikan oinarrituz, hobetzen jarraitu.

Taldearen komu- nikazio beharri- zanak zehaztu (funtzio/nozioak).	→	Portaera egitarau- tu. Esakuneak es- pezifikatu.	→	maila et aune ba- koitzerako progra- ma egin.
----------------------------------------------------------------------------	---	--------------------------------------------------------	---	-----------------------------------------------------

HASIERAKO GURE HIPOTESIRA ITZULIZ, GEROAGO ETA
ARGIAGO IKUSTEN DUGU ERABILPENAREN KONTUAK
ZERIKUSI ESTUA DUELA IRAKASTEAN ERABILTZEN DEN
ERAREKIN.

Komunikazio egoerak sortu eta komunikatzeko testuinguru
egokiak eskainiz komunikazio gaitasunak lortzen direla uste
dugu, hizkuntzaren jabeakuntza era naturalago batetan eta pausuka
baina etenik gabe burutzen joango delarik.

Ez dugu konformatu behar atalase maila lortze hutsarekin;
lehendabiziko maila hori lortu beharko dugu, bai, baina helburua
gorago jarritz, izan ere atalase maila, komunikatu ahal izateko
gutxienezko maila baitugu.

Lan honen helburua ez da, nola nahi ere, gure ihardueran sor
litezkeen akatsak zuzentzeko errezetak eskaintzea.

Egin-eginean ere, euskararen didaktikaren inguruan nituen
kezkak kanporatu eta ikastetxeetan erabili ohi diren metodologia
zaharkituen aurrean aldaketaren beharrezana azpimarratu nahi
izan dut, besterik ez bada ere, errebisatu eta zertan hobetu
dezakegun konturatzeko.

Pilare Baraiazarra